

NAPARROA'KO ERRIBERA TA EUSKEREAA

Entzute aundiko gizona da Euskalerrian billatzaille, euskalzale eta izlari trebea dogun Jimeno Jurio'tar Jose Maria.

Jaun ospetsu onek ondo irabazitako omenaldia izan dau Durango'ko Euskal Liburu ta eres-mintzen azokan: 72 urteko gizon onek oraintsu argitaratu dau idaz-lan bat idazpuruau au dala: «Euskerearen edestia Naparroa;n».

Beronek esaten dauan lez, «bere buruaren irakasle» dan jakitun onek liburu asko agertu dauz Naparroa'n eta au azkenengoa baiño ez dogu.

Durango'ko Azokak aintzat artu dau idazle txalagarri onek azkenengo iru amarkadetan egin dauan lana.

Ona emen Gorostiza'tar Joseba durangoarrak izlariagaz izan dauan alkar-izketa:

– **Zer deritxazu omenaldi oneri?**

– Omenaldia egiteko ustea ebela entzun nebanean, arrituta geratu nintzan, batez be Durango'ko azoka onek geroago ta entzute aundiagoa daukalako, bai gure errian eta bai Europa osoan. Lenengotan, omenaldia onartzeko lotsa apur bat zomatu neban, baiña gero, gauzea obeto aztertuta, arrituta egon arren, egin dot.

– **Eta zer deritxazu oraingo ekiñaldi au Naparroa'ri eskiña izateari?**

– Gauza zoragarria deritxat. Geroago ta geiago kontuan artu bear dala uste dot Naparroak gure Erriaren barruan dauan garrantzia.

– **Azoka onek beste au be gogoratzen dausku: Durango-aldea orain dirala 800 urte Naparroaren barruan egoala.**

Bai, ori bai. Durango-aldea ta lurralde osa, Gipuzkoa ta Araba be Naparroa'koak ziran eta. Ekiñaldi onek Naparroa'ri eskintzeak, edestiko jazokizun orreri sakontasun barria emon bear dautsola uste dot.

– **Gaur Naparroa eta Euskalerrria alkarrengana urerratzen doazela uste dozu?**

Egia esan, urrintze bat izan da, politikarien jokoa dala. Baiña astiro-astiro, gizarte-giroa aztertuz eta edestia argituz, urreratze au aundiago izango dala itxaroten dot.

– **Zu billatzaillea zara, zeure buruaren irakaslea eta sarritan eztabaidatua!**

Bai, ori egia da. Ni ez naz urten Ikastetxe Nagusiko girotik eta orrek askatasun bereizia emoten daust gauza batzuk estaeko. Ondo dakit nik esaten dodazan ainbat gauza eztabaidatuak dirala. Baiña erritarrak arduetan sartzea ez da gauza txarra.

– **Zer izaten dozu naiago zeure billaketarako: Politika-gaiak eta izkuntza-arlokoak aztertzea?**

Euskera-arlokoak dira ondorenik onena lortu dabenak eta orreixek emonten dauste pozik geien.

– **Zuk oraintsu argitaratu dozu Naparroa'ko euskerearen edestia deritxon liburua. Zelan dago gaur Naparroako Buru-Jabetza Alkargoan euskerea?**

Nire ustez, Naparroan euskereari buruz geroago ta ardura geiago dago eta gure izkuntzaren erabilketa be gora ta gora doa. Or dagoz ikastola'k be. Oneik dira esan dodan ardura ori agertzeko biderik egokiena. Baiña gauza barria eta guztiz jakingarria auxa da: Ardura ori ez dala Iruñako gauzea bakarrik, len Iruñan egozan ikastola guztiak, baiña ardura ori Erribera'ra be zabaldu da. Euskerea barriro eskuratzeko ardura bizi-bizi bat agiri da, euskerea ta euskal-jakintza eskuratzekoa, eta ori urtean joanean aurrera ta aurrera doa.

– **Baiña Erribera-aldean iñoz ez da euskeraz berba egin!**

– Egia da euskerea ez dala iñoz izan bertakoa eta iñoz izan ba'zan, edesti-aurrean izango zan. Inguru aretan ara ta ona ibilli ziran erromatarrak, godoak, bisigodoak eta musulmanak eta euskereak ez dau izan an aurretikoen erdurik eta gaiñera aspaldion geiengo dauken gizarte-arlo batzuk euskal-gai guztien aurka gorroto sakontzen alegindu dira.

Joseba Gorostiza'k, El Correo'n
(Euskaratzailea: Olazar'tar Martin)

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!